




## EAEko esportazioak %5,0 gutxitu dira

Atzerrira esportatutako ondasunen balioa  
Urte bakoitzeko urtarriletik irailera. Milioiak




Iturria: Eustat.

**Irailera arteko diru kopuru metatuan, EAetik atzerrira esportatutako ondasunen balioa %5,0 murriztu zen, aurreko urteko aldi beraren aldean.** Hala ere, beherakada hori gorabehera, serie historiko osoko erregistrorik handienetakoa da aurtengo ere, 2022an eta 2023an lortutako zifren ondoren.

## Etxebizitzen salmenta %4,8 hazi da irailera arte

EAEan saldutako etxebizitzak  
Urte bakoitzeko urtarriletik irailera bitartean



Iturria: INE.


**Aurtengo lehen bederatzi hilekotan, etxebizitzen salerosketa Euskadin %4,8 handitu zen, aurreko urteko aldi beraren aldean.** Zehazki, saldutako etxebizitzen kopurua ia 17.000 unitatekoa izan zen, interes-tasen etengabeko jaitsieren testuinguru batean.



## Turismoen matrikulazioa igo egin da EAEn

### Turismoen matrikulazioa EAEn

Urte bakoitzeko urtariletik urrira bitartean




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak berriki argitaratu dituen datuen arabera, urrira arte 23.495 auto matrikulatu ziren EAEn, aurreko urteko aldi berean baino %5,2 gehiago. Beraz, goranzko joera berretsi da, baina egia da erregistroak pandemiaren aurreko urteetan lortu zirenak baino askoz ere txikiagoak direla.

## Hoteletako gaualdiak berriro gehitu dira

### Hoteletan igarotako gaualdiak

Urte bakoitzeko urtariletik urrira. Milakoak



Iturria: Eustat.

Urrira arte, EAeko hotel establezimenduetan igarotako gaualdien kopurua %3,3 gehitu zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Hain zuzen ere, ia sei milioi eta erdi gaualdi zenbatu ziren, aldi horretan serie historiko osoan lortutako erregistrorik handiena.